

ESKOLA SEGREGAZIOA

Gasteizko Aranbizkarra Ikas Komunitatea, segregaziotik inklusiora bidean

Hasi da ikas-
turtea, txer-
toak tarteko,
modu «nor-
malizatua-
goan». Ez da
orokortu, ordea, pandemia
baino askoz lehenagotik esko-
lak jotzen dituen beste gaitz
bati aurre egiteko txertorik.
Izan ere, aspaldi detektatu ba-
zen ere, segregazioak «norma-
lizatua» dirudi ikastetxeetan.
Generoa, erlijioa, bizilekua, eta
leku askotan nabarmenena, ja-
torria, arraza eta egoera sozio-
ekonomikoa dira segregazio
motibo.

Etorkinen seme-alabak eta
errenta apaleko familietako
ikasleak ikastetxe publiko eta
kontzertatu jakin batzuetan
metatzeko joerak bere horre-
tan dirau, eta familia asko be-

 **HEZKUNTZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Aranbizkarra Ikas Komunitatea eskola segregazioa
inklusio bihurtzeko proiektu batean murgilduta dago
azken urteotan. Proiektu interesgarri bezain aberasgarria
da, baina haren xedea ez da auzo horretako ikastetxean
edo zenbait ikastetxetan inklusio proiektu arrakastatsu
bat egotea, jendarte inklusiboa lortzea baizik.

reizkeria faktore bat baino
gehiagoren mende daude; esa-
te baterako, atzeritik etorri
eta, gainera, maila sozioeko-
nomiko apala dutenak. Atze-
rritar pobreak, alegia. Hainbat
ikastetxe eta irakasle faktore
horien eragina gainditzeko
ekinbideak abiatu dituzte, bai-
na ez denek. Ez ikastetxe guz-

tiek, ez Administrazioak, ez
jendarteak oro har.

Hala uste dute Irantzu Ga-
llastegik eta Iñaki Agirrek,
Aranbizkarra Ikas Komunita-
teko zuzendariak eta aholku-
lariak, hurrenez hurren. Az-
ken urteotan, segregaziotik
inklusiorako bidea ibiltzeko
proiektu bat garatu dute Gas-

Iñaki Agirre eta Irantzu
Gallastegi, ikastetxearen
sarreran.
Endika PORTILLO | FOKU

teizko auzo horretako ikaste-
txean. Ikasturte hasierako zu-
rrunbiloan, tarte bat hartu du-
te proiektu horren berri
emateko.

Ezer baino lehen, argi utzi
nahi dute denen inplikazioa
beharrezkoa dela uste izan eta
eskatzen badute ere, beren
mezuak segregaziotik inklu-
siorako bidea egiteko anima-
tzea duela xede, proiektu inte-
resgarri, aberasgarri eta
emaitza onak dituen delako.

ARANBIZKARRA

Aranbizkarra ikastola Haur
eta Lehen Hezkuntzako zen-
troa da, publikoa eta D eredu-
koa. Ia 400 ikasle ditu. Mun-
duko 28 herrialdeetako
famiak daude hezkuntza ko-
munitatean, haien %39 atze-
rritarak. Ehuneko hori na-
barmen desorekatua da
auzoko osaeraren aldean.
2018an segregazioaren gaine-
an egin zen ikerketa batean
agertzen ziren ezaugarri
gehienak ditu Aranbizkarre-
ko ikastetxeak: profil sozioe-
konomiko apala, gurasoen
prestakuntza eskasa, atzerri-
tar kopuru handia, espektati-
ba apalak, irakasleek ikaste-
txean jarraitzeko arazoak,
ikasturtean zehar ikasle asko
joan eta etortzen dira...

Ez da egoera samurra; hala
ere, zerbait egin zitekeela uste
zuten, aniztasun horren ba-
rruan elkarrekin lan egiten
ikasiz. Horrenbestez, proiektu
integratzaile bat garatzeari
ekin zioten duela zenbait ur-
te. Hala ere, segregazioa ez de-
la kontu hutsala diote eta, na-
barmen dutenez, ezin da
eskolaren esku bakarrik utzi.
«Ez da nahikoa».

Diotenez, segregazio mota
bat baino gehiago dago, ba-
tzuk agerikoak eta beste ba-
tzuk «kamuflatzen saiatzen



direnak». Aranbizkarra Ikas Komunitateak segregazioaren banaketa aztertu du, herrialde eta eskualdeetan, auzoetan, ikastetxeetan, Gasteizko ikasleen bilakaera, atzeritar kopurua, biztanleriaren garapena, hirigintza... eta ondorio argi bat atera zuten: Aranbizkarreko ikastetxea ez da inondik inora auzoaren ispilu, eta desoreka horrek segregazioa eragiten du, «naturala ez dena, ez baita metaketa natural baten ondorio», Agirrerren hitzetan. Aranbizkarra ez da auzo zaharra bizilagunen adinari dago-kionez, eta jaiotza kopurua ez dator matrikula kopuruarekin bat. Horrek esan nahi du hara joan daitezkeen asko ez direla joaten.

IKASKUNTZA DIALOGIKOA

Beraz, eraldaketa prozesu bati heldu zioten eta, Paulo Freire pedagogo brasildarraren hitzak gogoan, «zailtasunak aukera bihurtzea» goiburu, haren pedagogiaren ildotik landu zituzten beren estrategiak ikas komunitateak proposatzen duen eredua garatzeko.

Oinarri-oinarrian, ikaskuntza dialogikoa dago. Gallastegik dioenez, jarrera kontua da irakaskuntza prozesuari eta estrategiei aurre egitea. Elkarriketa bidez ikasten dela dio, elkarriketa berdintasunean eginez, hierarkiarik gabe, elkarrekin hitz egin eta parte hartuz. Horrek komunitate horretakoa izatearen sentimendua areagotzen du, baita espektatibak handitzen ere. Emaitzek erakusten dutenez, ikaskuntza instrumentala eta arrakasta handiagoak dira, baita bizikidetzera ere.

Ikas komunitateak probatu-ta dauzkan metodologia eta estrategiak dira lehenengo jarduera arrakastatsuak, guztiak

Paulo Freire pedagogo brasildarraren hitzak gogoan, «zailtasunak aukera bihurtzea» goiburu, haren pedagogiaren ildotik landu zituzten beren estrategiak

Zenbait parte-hartze maila dituzte, hala nola familiarekin erabakiak hartzeko eta ebaluatzeko parte-hartzea, edo parte-hartze hezigarria, gelan bertan lan egitea proposatzen baitiete

elkarrizketaren gainean erai-kiak: tertuliak, taldeko elkarre-ragileak... Jarduera horietan helduek eta boluntarioek ere parte hartzen dute, eta fami-liak ere eskola barruan parte hartzea nahi dute; esate bate-rako, matematika egiten ari di-rela, aita eta ama ere joatea umeez egiten duten lana dina-mizatzeko; izan ere, familiak bertan egotea egokia dela uste dute, ikasleen erreferentzia di-relako.

Irakasle ikasketak egiten ari direnen laguntza ere garran-tzitsua da, euskara arloan, adi-bidez, baliabide asko behar di-tuztelako. Eta boluntarioen artean ikasle ohiak ere joaten dira hainbat jarduera egiteko.

Beraz, «mugimendu sozial handia dago» Aranbizkarra Ikas Komunitatean. Elkarre-kintzak zenbat eta anitzagoak izan, orduan eta aberatsagoak omen dira, eta jardueretan zenbat eta askotariko profile-tako jende gehiago, orduan eta ikaskuntza hobea.

Digitalizazioari dagokionez, arrakala digitala gainditzen saiatzen dira. Gaur egun orde-nagailu bat daukate ikasle ba-koitzeko. «Bere garaian pixka bat izutu ginen diru kontuekin, beti baikabiltza horren men-de», gogoratu du Gallastegik.

Garrantzi handia ematen diete jarduera osagarriei, eta programa oso zabala dute. Fa-milia askoren aisialdia ez da

hemengo gehienaren antze-koa; batzuk ez dira ateratzen, ez dute hiria ondo ezagutzen, ez doaz museoetara edo musi-ka kontzertuetara... eta horiek ere aintzat hartzen dituzte kulturaren, artearen, kirolaren ezagutza izan dezaten.

PARTE HARTZEA

Eredu horren funtsezko gako-etako bat parte-hartzea da, eta zenbait parte-hartze mai-la dituzte. Informazio eta kontsultarako maila da horie-tako bat, eskola guztietan egi-ten dena; hala ere, parte-har-tze maila horrek, besterik gabe, arrakastarako aukera gutxi daukala azaldu dute he-zitzaileok. Hartara, beste mai-la batzuk ere badituzte, hala nola familiarekin erabakiak hartzeko eta ebaluatzeko par-te-hartzea, edo parte-hartze hezigarria, gelan bertan lan egitea proposatzen baitiete. Arlo batzuetan aurreratuagoa daukate praktika, eta beste batzuetan, ebaluaziorako par-te-hartzea kasu, garatze bide-an. Erabakiak hartzeko, ordea, badute batzorde misto bat he-

zitzaileek, ikasleek eta fami-liek osatua. Eta Lehen Hez-kuntzan ikasleen asanblea ere badago.

Parte-hartzea hizpide, duela zenbait urte ekin zioten proze-sua gogoratu du Gallastegik: «Oso polita izan zen, oso emankorra». Guztientzako ar-lo komunitario bat sortzea zu-ten helburu, eta horretarako eztabaida eta negoziazio pro-zesua abiatu zuten arauak era-bakitzeko. Eta ildo horretatik jarraitzen dute. Ez dela erraza diote komunitateak aktibo iraunaraztea: «Parte-hartzea ez da inprobisatzen, eta fun-tsezkoa da, baina erakarri egin behar da jendea, zentzua izan behar du, familiek sentitu be-har dute esaten dutena garran-tzitsua dela».

Beste alde batetik, familien formakuntzarako programa ere abiatu zuten, ikasleen arra-kastaren lagungarri dena. Pro-ba pilotu batzuk egin zituzten duela urte batzuk. Zenbait amak gaztelania eskolak eska-tu zituzten eta proiektu bat aurrera atera zuten Udalare-kin elkarlanean, orain artean



Inklusio proiektuetan inork ez du galtzen, denak irabazten baizik. Gorka RUBIO | FOKU

PAULO FREIREREN «ZAPALDUAREN PEDAGOGIA»

Paulo Freire pedagogo brasildarrak eskaini zuen hezkuntzaren ikuspegi berriaren oinarria da ikaskuntza dialogikoa. XX. mendeko pedagogorik garrantzitsuenetakoa izan zen Freire, eraldaketarako pedagogiaren sustatzailea, eta «Zapalduen pedagogia» lanean bildu zuen ikuspegi berri hori, gizarteak eta hezkuntzak zapaltzen dituzten kolektiboen eta oro har gizartearen askatasuna aldarrikatzeko. Mende erditsua joan da «Zapalduen pedagogia» argitaratu zenetik, baina lan horrek eta bertan Freirek garatu zituen ideiek gaurkotasun bete dute: irakaskuntzan berdintasunean oinarritutako komunikazioak duen garrantzia; irakaskuntza bankarioa arbuiatzea, «ikasleak ez baitira ezagutza-ontziak»...


etsi diotena. Era berean, HHE Helduen Hezkuntzarekin elkarlanean euskara, gaztelania, alfabetatzea eta informatika eskolak ematen dituzte. Horiek dira eskari handienekoak, baina prest daude, norbaitek eskatuz gero, eskaintza zabalitzeko. Oraindik orain ama talde batek matematika eskolak eskatu ditu, batez ere haurrei laguntzeko.

Eskola orduak zabaltzea beste laguntzarik jasotzerik ez duten ikasleentzako errefortzuak emateko ere baliatzen dute. Horretarako, Gasteizko Gobernuak eskaintzen dituen programa batzuk baliatzen dituzte, hala nola Bidelaguna eta Liburutegia. Udaleko gizarte zerbitzuarekin ere harremana dute, Haurtzaro eta Familia Zerbitzuarekin, formakuntzarako, ikasleekiko tutoretza saioak egiteko, eta kale-hezitzaileekin aisialdia antolatzen dute. Azkenik, guraso elkarrekin ere saiatzen dira eskolaz kanpoko jarduerak egiten.

Urrunera gabe, ikastetxeko Zuriher Guraso Elkartea, Udaren laguntzaz, esperientzien inguruko elkartruke jardunaldiak antolatzen ari da datorren azarorako ikastetxean, eta Aranbizkarra Ikas Komunitateak parte hartzeko gonbita egin die gasteiztar guztiei. «Hirian dugun aniztasunaz aberastu eta elkarren arteko sinergia sareak bultzatzea» da jardunaldion helburua.

BIZIKIDETZA HELBURU

Aurreiritziak daudenean, esate baterako bizikidetza dela eta jendeak beren seme-alabak ikastetxe horretara edo beste leku batera eraman nahi ez duenean, norberaren umea norekin elkartuko den izaten da kezka. Hezitzaileok uste dute euren proiektua, hain zuzen



Aranbizkarra Ikas Komunitateko irakasle batzorde bat, ikasturte hasiera prestatzen. Endika PORTILLO | FOKU

ere, bizikidetzaren inguruko arazoak gainditzeko dela. «Eta gainditzeko dira», dio Gallastegik zalantzarako tarterik utzi gabe: «Bizikidetza ona dago».

Maila akademikoari dagokionez, badakite kanpotik datorrenak beste erritmo bat daukala, baina frogatuta daukate, era berean, hemengo ikasleek ez dutela ezer ere galtzen, «irabazten baizik»; izan ere, bigarren horien maila akademikoak ez du behera egin, eta bizikidetzari dagokionez, irabazi egin dutela diote. «Oso zabaldua dago honelako egoera batean ikasle batzuek atzera egingo dutela beren ikasketetan motelago joango direlako, eta bizikidetza horrek arazoak baino ez

«Parte-hartzea ez da inprobisatzen, eta funtsezkoa da, baina erakarri egin behar da jendea, zentzua izan behar du, familiek sentitu behar dute esaten dutena garrantzitsua dela»

Maila akademikoari dagokionez, badakite kanpotik datorrenak beste erritmo bat daukala, baina frogatu dute, era berean, hemengo ikasleek ez dutela ezer ere galtzen, «irabazten baizik»

dituela ekartzen». Ez du zertan horrela izan; areago, ez da horrela, Aranbizkarra Ikas Komunitatearen praktikak eta hainbat ikerketa zientifikok seinalatu dutenez. Horien arabera, desabantaila gehiago ditzuten ikasleak multzokatzearen ondorioz, horien errendimendu akademikoa txikiagoa izaten da ohiko inguru batean izango luketena baino, eta ohiko ingurune horretan, desabantailarik ez dutenen errendimenduak ez luke behera egingo.

ETIKETARIK GABE

Edonola ere, segregazioaren adibide gisa agertu nahi ez duten bezala, segregaziotik inklusiora egiten duen eredu gisa ere ez. Ez dute uste segregazioaren arazoei aurre egiteko ikastetxe batek edo batzuek proiektu inklusibo batean espezializatu behar dutenik. «Hori ez da konponbide bat, ez da jendarte batek eman behar duen irtenbidea. Gu ez gara inklusioan espezialistak. Nola antolatuko dugu hezkuntza eta ikastetxeak, espezialitateen arabera? Kontua ez da bakoi-

tzak bere marka izatea», dio Agirrek.

Beste alde batetik, baina horrekin lotuta, batzuetan zalan-tza egiten dutela diote beren mezua zabaltzean: «Horretaz zenbat eta gehiago hitz egin, eta eraldatzeko hitz egin behar dugula uste dugu, orduan eta ospe handiagoa hartzen duzu eredu berezi bezala, eta horrek matrikulazioan eragina izan dezake. Hona sartu diren bertako familiek ondoren ez dute alde egin, gustura egon dira, eta askotarikoak dira, baita goi maila sozioekonomikokoak, eta halako etiketa izateak batzuen zalantza eragin dezake».

Izan ere, badakite jende askok umeak «nahasteko» beldurra duela, eta beldur hori oztupoa izaten da jende askorentzat. Gallastegik «beldurra» esan nahiago du, «aurreiritzi» esateak ezkorra dela ematen duelako, «baina elkarrekin biziz ikasten da elkarrekin bizitzen, ez telebista ikusiz edo egunkarian hemengo berri irakurriz». Agirreren ustez, jendeari segregazioaren aldekoa den galdetuta, gehienek ezetz esango dute, «baina teoriatik praktikara bitarteko aldea handia da». Ez dute esan nahi seme-alabak horra eraman nahi ez dituen segregatzailea dela, ulertzen dute ume txikia babestuen dagoen lekura eraman nahi dutela denek. Horrenbestez, jendartera zabaltzen diren mezuak eraldatzaileagoak izan beharko lirakekeela uste dute, «egin daitekeen zerbait da; horregatik, aukerak ere nabarmendu beharra dago, eta ez ga-beziak bakarrik».

KOMUNITATE APUSTUA

Eskola segregazioa ez da ikastetxeen kontua bakarrik, ezta familiarena, edo instituzioena bakarrik. «Guk uste dugu gu-

rea proiektu erakargarria dela», dio Agirrek, «baina garrantzitsuagoa dela uste dugu jendarte mailan pedagogia egitea, horren falta sumatzen dugu. Inklusiboa ez du eskolak bakarrik izan behar, baizik eta jendarteak». Eta pedagogia egin beharra dagoela diote «aureritziak, edo beldurrak, ulergarriak izan daitezkeen beldurrak, uxatzeko».

Komunitate baten apustua izan beharko lukeela uste dute, eta zenbait esperientzia ekarri dituzte hizpidera; hala nola Gasteizko Alde Zaharreko Ramon Bajo ikastetxearena, auzoa eta eskola batera dihardutena, edo Kataluniako zenbait esperientzia. «Hori nola orokortzen da, baina?», galdetu du Agirrek. Eskola hautatzeko askatasuna oztopo bat izan liteke horretarako: «Ez da samurra esatea egon behar duen edo ez, eta egon behar badu, noraino... Kupoak jartzea zertarako da, atzerritar gutxiago izateko? Nahi ez dituzun ikasle gutxiago izateko?».

MEZU POSITIBOA

Zailtasunak zailtasun, mezu positiboa zabaldu nahi dute jendartera. «Beharbada nire inpresioa da, baina uste dut badagoela kluxe bat, beti negarrez agertzen garen irudia. Errealitatea ezin da ukatu, eta eskatu egin behar zaie Administrazioari eta jendarte osoari pausoak emateko, denon inplikazioa, baina baita gauza positiboak badaudela esan ere», dio Agirrek, eta Gallastegik, berriro, ez dutela inondik inora inori kargu hartu nahi, animatzeko mezua zabaldu baizik, «merezi duen zerbait delako. Jendea animatu nahi dugu beldurra galtzeko, oso proiektu interesgarria da, eta oso aberasgarria

izan daiteke, inork galtzen ez duena, irabazten baizik, eta denok parte hartuko bagenu, are aberatsagoa izango litzateke. Aukera bat da».

Hausnarketa bat partekatu nahi dute, amaitu baino lehen, eztabaidarako baliagarria delakoan. Xede nagusia inklusioa da, eta segregaziotik inklusiorako bide hori ez da eragile bakar baten edo bakan batzuen ardura bakarrik, baizik eta jendarte osoarena. Batzuetan joan izan zaizkie esanez entzun dutela oso proiektu ona daukatela, baina helburua ez dela proiektu inklusiboa nahi duten familiak horra eta besteak beste leku batera joatea. «Horrelako banaketa egon behar da? Zenbait eskolak erantzun behar diote arazoari, edo sare batek...?», galdetu du Agirrek. Eta jarraian erantzun posible bat:

Ez dute uste segregazioari aurre egiteko ikastetxe batek edo batzuek proiektu inklusibo batean espezializatu behar dutenik. «Hori ez da jendarte batek eman behar duen irtenbidea»

«Errealitatea ezin da ukatu, eta eskatu egin behar zaie Administrazioari eta jendarte osoari pausoak emateko, denon inplikazioa; baina gauza positiboak badaudela ere esan behar da»

Agirre eta Gallastegi
ikasgela batean.
Endika PORTILLO | FOKU

«Proiektu inklusiboak eskola guztietan egon beharko lirateke, ezta?». Izan ere, «helburua Gasteiz inklusiboa da, Euskal Herri inklusiboa, ez eskola inklusibo bat».

Eskolari dagokionez, «hez-kuntzarako bideratzen dena nahikoa da? Eta bideratzen edo banatzen den modua egokia da? Hori da gizarte osoari, ez Administrazioari bakarrik, dagokion eztabaida», uste du Agirrek.

Arrakasta ere garrantzitsua da eurentzat, baita akademikoa ere, jakina, etorkizun laborala eta euskararen ezagutza bermatzeko. «Maila akademikoan edozein ikastetxek eman dezake halako emaitza, baina umeei askotariko kulturekin harremanetan elkarrekin bizi-tzen ikastea ere lortu behar da, zailtasun guztiekin, eta hori aberasgarria da», dio Gallastegik. «Jendea Marokora joango da oporretan ez-dakit-zer ikustera, edo Erasmus programarekin ez-dakit-nora, eta hori bai, kulturarteko bizikidetzat da, baina hemengoa ez, nonbait».

Gauza bat dute alde, ordea: eskarmentua eta emaitzak. Proiektu fidagarria dela erakusten duten emaitzak. «Oraindik asko dago egiteko», diote zuhur, «baina bidea egiten hasi gara».

